

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko apirilaren 21a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Elizondo • Liburutegian ez dago liburuak eta irakurleak biltzeko lekurik

Laura Laubach • «Biberoiaren kulturen bizi gara»

Erronkariko gazta, latxa ardiaren esnearekin



• CRISTINA BERNAIN



• JOXE LACALLE

Latxarena ez ezik, rasa ardiarena eta latxa-milchschaft F1 gurutzatuarena ere erabiliko dute. Baina kontua da lacaune ardi frantsesen esnearekin ezin izanen dela egin Erronkari jatorri izendapeneko gazta. Halaxe erabaki berri du Nafarroako Gobernuak. UAGN sindikatua sutan dago.

EHNE sindikatua eta latxa ardia baliatzen duten mendialdeko artzainak, berriz, pozez gainezka. Baita latxa ardiak ere, noski.

Elizondo •

Liburuak gainezka

Elizondoko liburutegian ez dago tokirik ez irakurleentzat ezta liburuentzat ere

Liburutegi batean irakurleentzat eta liburuentzat tokirik ez dagoenean iristen dira arazoak. Elizondoko liburutegiak Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko 8.500 biztanleei eman behar die zerbitzua.



Elizondoko liburutegian ez dago liburuak eta irakurleak biltzeko lekurik. ONDIKOL

ELIZONDON DAGOEN LIBURUTEGIA 1982an sortu zen, bertako udaletxean. Orduan, Baztango Udalak Arizkunenea jauregia jaso zuen, baina lehenagoko jabeak kultur ekitaldi eta erakundeentzat izatea nahi zutela azpimarratu zuten. Hori zela eta, liburutegia txikia gelditu zenean, 1996an, Arizkunenea Kultur Etxera eraman zuten. Egoitzak 27 mahai eta 100 metro koadro ditu irakurleentzat. Egun 1.502 bazkide ditu liburutegiak, eta urtean zehar 8.300 bat irakurle igarotzen dira bertatik. Liburuen kopurua gutxi gorabehera 10.000 alekoa da, eta urtero 600 ale gehiago daude apaletan; hori dela eta, liburu bat hartu orduko irakurleak lau bota ditzake lurrera, bata bestearen gainean daudelako. Beraz, argi dago toki arazo handia dagoela.

Bestalde, informatizazioa ez da oraindik iritsi, ez daukate ordenagailu bakar bat ere eta liburuak sailkatzeko ohiko paperezko txartelak betetzen ditu liburutegiko arduradun Sonia Lopezek. Bera da egoitzan dagoen langile bakarra, eta eri dagoelarik edo edozein arazo dela eta ezin bada liburutegira joan, ez du ordezkorik.

Sonia Lopezek dioenez, «ikastetxeetako haurrak bistan datozenean, harrituta gelditzen dira gure atzerapenarekin, eurek eskoletako liburutegietan dena informatizatua dutelako. Toki askotan Internet eskaintzen dute

dagoeneko; guk ezin dugu hori amestu ere egin». Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udalak hitzarmena sinatua dute liburutegiari dagokionez. Udalak egoitzaren ardura du, eta Gobernuak, langileena.

500 edo 600 metro koadroko lokala beharrezkoa litzateke beharrak asetzeko, liburuez gain bideoak eta CD-ROMak kokatzeko. Toki honetan zenbait gela egiteko aukera egongo zatekeen, haurrentzako irakurgela, helduentzako irakurgela eta ikasleentzako gela... Bestalde, ez da isiltasunik izaten, egunero, gutxi gorabehera, 80 pertsona igaro-

tzen direlako bertatik. Langile bakarrarekin ere ordutegia ez da behar bezain zabala, liburutegia arratsaldez bakarrik dagoelako irekita, hiruretatik bederatzietara. Sonia Lopezek ez du itxaropena galtzen, alkatetzan dagoen alderdiak, EAK, hauteskunde programan liburutegia moldatzeko agintza egin baitzuen. Momentuz, hurrengo igandean liburuaren eguna izanik, Elizondoko saltegiatara liburuak eraman dituzte irakurketa bultzatzeko eta egun batzuetan bederen toki gehiago izateko.

→ Rakes Goñi

Barañain •

Sortzen-en besta egiteko laguntza behar dute

HELDU DEN EKAINAREN 3an, larunbatarekin, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak antolatutako Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko V. Besta Barañainen egingen dute, «euskararen erabilera bultzatu eta D ereduko eskolen arteko harremanak indartzeko asmoz». Bestaren antolaketa herriko Alaitz ikastetxearekin dago. Sortzen eta Ikasbatuaz elkarteak duela guti elkar-tu direnez, aurtengo besta-ra jende gehiago etortzea espero dute.

Antolatzaileek adierazi dutenez, «nahiz eta bestaren helburua dirua ateratzea ez izan, egia da gastu dezente sortzen dituela, eta, bestalde, diruaren araberakoa izan dena ekitaldiaren kalitatea, azpiegitura eta egitaraua». Udalak eta Hizkuntza Politikak eman dirua nahikoa ez dela kontuan hartuz, Sortzen-ek laguntza eskatu dio Nafarroako gizarte-ari. Bestaren egunean tonbola bat paratu nahi dute, eta horretarako, opariak behar dituzte. Diru laguntzak ere eman daitezkeela adierazi dute. «Laguntza isilpekoa edo publikoa izan daiteke», erran dute. Laguntza emateko 948-221380 (Sortzen) edo 948-286015 (Alaitz) telefonotara deitu behar da. Elkarteak 14.000 bat lagun biltzen ditu guraso, irakasle eta langile ez dozenteen artean.

→ Asier Azpilikueta

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Sidrerros go home

Etzerako bidean dira azkeneko mozko-auto-busak. Upelak hustu dituzte eta, azkenik, hutsik herria ere. Autobusa kausitzerik izan ez duten azken ttuntuneroak baino ez, allegretoaren azken konpasak amaitu ezinik. Biharamunean beriz kalera aterako dira herritarrek hiru hilabeteko erbeste behartuaren ostean, eta besta egingen dute biltegian gordeta zuten azken sagardo botila preziatuarekin. Lasai-lasai egiten dute igeri bakailaoek orain itsasoi-an.

Atzean gelditu da autobusen inbasioa, autobidean arrapaladan pilotzen ziren auto ilara luzeak. Sagardotegiaren atarian, mendi bidean gorako ertzeetan gaizki aparkaturiko NA matrikuladun autoak. Bizilagunek direnak ei ditugu beti gustuko, eta noski, ez dira debaldekoak Andiako onddoak. Azken asteburua izan zen aurrekoa. Ikuskizuna dramatiko oso.

Lehenengo pasarteak: etxeak pertsiana bajatu

nahian, denboraldiaren azkeneko segundoak ere aprobetxatuz betikoak, upelen gainean dantzan. Mahaiak biluzik eta sagardo-gunean overbookina, txotx egarritz. Edalontziak garbituta ere hantxe, ipurdia atzera, gorputza makurtu eta ahoa okertuta, upela iturri bilakaturik. Bigarren eszena: txuletoiarekin batera, sagar-dantza eta kanta-errepertorioa prezio berean jasan behar jabeak. Gaizki dantzatutako fandangoak, lepoko zainen bibrazioarekin ozenki jaurtiriko sustrai kantuak, hunkidurarik gabeko jota desafinatuak...

Menditik behera, kanpotarrez josiriko herrian jarraitu zuten OSASUNA ALE tipikoarekin. Herrikoak ordurako etxean eta ostatuak itxita, sagardoaren hondakinak noiz urrunduko zain. Sagarraren hotelak itxi bezain pronto martxan jarri ziren autobusen motorrak. Kantaldiak diskotekan ziharduena, eserlekuen gainean. Goizaldeko kruasanek eta kafean hondaturiko termalginen agurtu zuten eguzkia. Sagardotegian

hustutakoak, poltsa berdeak pustuarazi zituen, hirira bueltako bihurtuneak zirela medio. Artean, autobusa borondatez galdu zuten hainbat bikotek, noraezean oraindik herriko karriketan zehar. Elkarri lotuta, habi erosoago baten bila.

Hirian handia izaten da sagardo egarriaren izurritia. Baina sagarraren zukuak badu amaierarik. Aste Santua aitzin, hala amaitu zen urtez urteko ekitaldia, upel santuari ohore egiteko prozesioa. Ostiral bakaren batean asfaltotako sagardotegi horietan ase beharko ditugu beharrak. Mozkortze turismoaren ostean aurtengoz ere Hermaniko hormaren batean tinko jarraituko du sprayz idatzitako sidrerros go home mezuak, gure omenez. Trotamundos gidako bisita gune bilakatuko da azkenik. Denboraldia amaitu da, akabo. Eguzkia heldu ahala, Zarautz hantxe izanen dugu beti, Andiako gure onddoen zorra orekatzeko.

Lizarra •

Historiaren argazkiak

Antzinako argazki zaharren erakusketa ikusgai Lizarrerria kiroldegian

Domingo Llaurok, 70 urteko argazkilari lizarratarrak, eta Almudi kultur elkarteak antolatu duten erakusketa ehun bat argazki xarmangarri biltzen ditu, eta maiatzaren 12a arte izanen da ikusgai.



Domingo Llaurok bildu argazkiek antzinako Lizarraren xarma erakusten dute.

EGUNKARIA

GARAI BATEKO PARAJE arrunt bat jaso eta urteak pasatu ahala agizko paraje hori leku amoltsu bilakatzen da. Begi ninen sakontasunean baino aurkitu ezin daitezkeen bazterrak, desagertzearen dau-den txokoak, denboraren joan-etorrian isilean gelditu diren karrikak eta iraganeko istant ahaztuak. Oro har, Lizarraren historia osatzen duten argazkiak ikus daitezke Lizarrerria kiroldegian. Orotara ehun bat argazki bildu dituzte aurtengo erakusketan; zaharrena Cordeleros parajearen argazkia da, bertan zezenplaza zegoen garaikoa, iragan mendeko argazkia hain zuzen ere. Tartean, mende honetan Lizarrak izan dituen aldaketen lekuko diren hainbat eta hainbat irudi: Fray Diego kalean

makalak ikus daitezkeen hori, edo Lizarra karrikatik artalde bat igarotzen ikusten dugun bertze hura. Halaber, hiriko kultura, bizimodu eta ohituraren lekuko diren bertze argazki batzuk ere ikus daitezke.

Urtetik urtera Domingo Llauro arduratzen da erakusketa honen prestaketaz. 1988. urtean, hainbat argazkizalek prestatu zuten aurrenekoa, bertzeak bertze, Gabino Sanzek eta Domingo Llaurok berak. Jendearen harrera ona ikusita, Domingok ekimen honekin aurrera egitea erabaki zuen. Bera arduratzen da argazkiak biltzeaz. Argazkien erdiak Domingok eginak dira, eta bertzeak Lizarrako herrita-

rrek utzi dizkiote. «Jendea berehala gogoratzen da bere etxeko armairu batean gordetzen dituen argazkiez, eta interes historikoa duten heinean, erakusketan ipintzen ditugu», adierazi du. Almudi kultur elkarteak antolatzen du erakusketa, Domingoren lan isilaren laguntzarekin. Negatiboak bildu dituzte eta positiboak Almudik jasotzen ditu. Dagoeneko, kultur elkarteak antzinako 1.500 argazki baino gehiago dauzka.

Domingo Llauro 70 urteko lizarratarrak argazkilaritzaren munduan nola hasi zen gogoratu du: «1953. urtean nire osaba batek Kodak argazki

makina utzi zidan. Hauspo batekin funtzionatzen zuen makina horrek. Geroxeago Voigtlander izeneko argazki makina erosi eta horrekin argazkilaritza ikastaroa egin nuen, posta trukez». Horrelaxe ikasi zituen Domingok arte honen nondik norakoak, baina bizitzan zehar atera dituen argazki horiek guztiak izan dira bere benetako eskola. Egun, 25.000 argazki baino gehiago ditu bere etxeko txoko batean. «Bere garaian asmo hori ez bannuen ere, egun argazkiek gauzak kontrastatzeko eta hiriaren bilakaera erakusteko balio dute», bukatu du Domingok.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Euskarari arreka

Euskararen inguruan Nafarroan jasotako azken gertakariak aztertu ditu **Herria** astekariak bere azken zenbakian: «Nafarroako Gobernu buru den Sanz presidentak euskara ezin jasana dauka itxura guzien arabera. Araudi berezi baten bidez Nafarroa bizpahiru herrialdetan zatitu zuen duela zontzaitu urte Euskararen legea deitu zuen bat erabakiz. Ez euskararen eraikuntza laguntzeko bainan mugatzeko bakarrik. Ikastolak ez zaitez denetan finka edo berriak eraiki. Aspalditik, haste hastetik, bost egin ahalik egin ditu ikastolen sortzea tratatzeko: baime-

nak ukatuz, dirurik ez emanez eta abar. Berarentzat eta Nafarrixta kasko gogorrenzat espagnol hizkuntza baita bakarrik konda Nafarroan. Alta, Euskara Lingua Navarrorum deitzen da aspaldiko mendetan eta liburuetan. Sanzek eta dakike hain segur euskarazko lehen liburuki eta idazkiak San Millan de la Cogollan, Errioxan, aurkituak izan direla, komentu batean, Ebro ibaitik haratago».

«Ez da Sanz bakarria Euskarari aihur dena Nafarroan. Sozialixten buruzagiak ere Sanzen pareko jokabidea eta ikusmoldea derabil Euskara-

ren erakaskuntzari buruz. Lizarbe sozialisten buruak goraki errana du ez dela euskara unibertsitateko hizkuntza bat eta hor sartzearen kontra dagoela. Lizarbek, Sanzek bezala, bere burua xuritu nahi du euskararen etsai ez dela erranez goraki, eta euskararen gaia Nafarroako Parlamentura eramaitea proposatuz. Ez baitezpada euskararen aldeko erabakiak sortuko direlakoan, bainan Nafarroako administrazioan euskara sartzearen kontra delako, Sanz presidentea bezala. PSN eta UPN tantituri, biak elgar iduri.

Bakardadea, Zuzentzailea eta hirurok

Adiskideak esan dit: «Ostiral honetako artikulua egiterakoan inork ez duela irakurriko gogoa har ezazu». Egia da. Arrazoi osoa du. Erabatekoa. Beti bezain fin mintzatu da. Zirujau baten zehaztasunarekin. Bai horixe. Miguel Sanzek berak ere ez zuen hitz zehatzagoetan azaltzerik lortuko. Ostiral saindu honek Igande Mugaezin baten itxura guztiak hartuko ditu, hartu ditu dagoeneko, eta euskaraz idazten duen jendearentzat Basamortu Infinituaren itxurak ere hartuko ditu. Baldintza zehatzak bete behar baititu tankera hauetako zutabe irakurleak: euskalduna eta nafarra izatea; biak batera, eta baldintza hauek betetzen dituztenak, oso jende gutxi, oso mugatua, ez daude gaur, Ostiral Saindu Basamortu Infinitu honetan, NAFARKARIAko orrialdeen aurrean. Ez. Beste nonbaiten egongo dira, baina ez hemen. Kotxea, tren, abioia edo txirrindula hartuta hortik ibiliko dira, NAFARKARIAk saltzen diren kioskoetatik urrun. Orrialde hau, imprimategitik atera ondotik oraindik ere bero egongo den hau, aurrean duen NAFARKARIAko orrialdeari lotuta, itsasita egongo da segur aski, inoren inongo begiradapean egon gabe, eta paketeetan banatua izango delako ziurtasun osoa izan arren, jakin badakit ere inork ez duela ez erosiko, ez orrialde hau zabalduko. «Beno, beno!», esanen didazue, «zuzentzaileak behintzat irakurriko du! Animo! Idatzi zer edo zer berarentzat!». Bai. Hori ere egia da. EGUNKARIAko zuzentzaileak irakurriko du. Baje. Zer edo zer jarriko dizut bada, zuzentzaile. Estooo... a bai!: Erregea arrosa hartu zuen. Ala! zuretzat. Entretenezko bada ere. Zuzendu ergatiboa (ergatiboaren gauza dela esaterakoan pista bat eman dizut!). Beste bat (zailagoa): Erregea arrosa hartu zuen. Arrosa gorria zen. Lotu aurreko bi esaldiak. Txantxa zen! Ez moskeatu gizona! Aizu: egunen batean elkar ezagutzeko eta pote bat hartzeko elkartu beharko genuke! Ez da hala? Nahi duzuean motel! Ni hemen nago; ikusten duzue, ez naiz mugitzen. Nahi duzuean deitu. Beno, honekin agurtzen zaitut. Datorren astea arte. Bion artean sortu den intimitate ez ohiko hau hautsiko duen artikulua arte. ●

Latxa ardiaren garaipena

Erronkari gaztaren inguruko azken erabakiak hautsak astindu ditu gazta egileen sektorean

Nafarroako Gobernuak atzera bota berri du Erronkari jatorri izendapeneko gazta lacaune kanpoko ardiaren esnearekin egiteko eskaria. Erronkari gazta rasa eta latxa ardien esnearekin egiten jarraitu beharko dute gaztagileek oraingoz. Latxa ardiaren garaipena izan da, baita Mendialdearena ere.

ERRONKARI GAZTAREN JATORRI IZENDAPENA 1981ean sortu zen, eta bere araubidea 1989an onartu zuten. Izendapen horretako Kontseilu Arautzaleak 1998ko urrian eskatu zion Nafarroako Gobernuari araubideko zenbait artikulua aldatzeko. Eskatzen zen gauza garrantzitsua zen Erronkari gazta lacaune ardi esnearekin —kanpoko da— egin ahal izatea. Gobernuak zenbait txosten eskatu zizkion Kontseiluari eta honek 1999ko abenduan eman zizkion.

Txosten horiek aztertu eta gero, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Sailak foru agindua atzera zuen apirilaren 3an, erabakiaren berri emateko. Funtsean hau dio erabakiak: «Erronkari gazta egiteko erabili beharreko esnea rasa edo latxa ardiarena edo milchschatzaren arteko F1 gurutzatzearena izan da». Hau da, Erronkari jatorri izendapeneko gazta lacaune ardi kanpotarraren esnearekin egiteko eskaera errefusatu du Gobernuak. Erabaki hori argudiatzeko hainbat arrazoi baliatu ditu. Bi dira nabarmentzeko modukoak.

UAGN:
«Kontsultatu ziren elkarte eta erakunde gehiengo nabarmenaren aurkakoa izan da Gobernuaren erabakia. Foru aginduak datuak puztu ditu esne defizitik ez dagoela ondorioztatzeko»


EHNE:
«Ona da lacaune bezalako ardi industrialak errefusatu izana. Guk pentsatzen dugu ardia eta artzaina elkarrekin doazela eta, dirudienez, horrela izaten jarraituko du»

UAGN, haserre
Adierazi bezala, foru agindu hori apirilaren 3koa da, baina erreakzioak berandutu egin dira. Astelehenean EHNE-Nafarroa sindikatuak egin zuen bere balorazioa prentsaurreko bidez, eta asteartean UAGN sindikatuak bere iritzia aditzera eman zuen komunikatu batean. UAGNk gogor kritikatu zuen bere ko-

munikatuan Ignacio Martinez Alfaro Nekazaritza kontseilariaren erabakia. Egia errateko, sarkasmoz beterik dago komunikatu hori (kontseilariaren argudioak «bikaintzat» jotzen ditu, adibidez) eta horretan nabari da, batez ere, UAGNren haserre. Gainera, sindikatuak bilera egiteko eskatu zion kontseilariari eta honek erantzun argia eman zion: «Bilera egiteko batere motiborik ez dago». «Lehenbiziko aldia da», UAGNren komunikatuak dioenez, «Nekazaritza kontseilariak gu hartzeari uko egiten diola».

UAGNren ustez, Gobernuaren erabakia kontsultatu ziren elkarte eta erakunde gehiengo nabarmenaren aurkakoa da (sindikatuaren arabera, %80k osatzen dute gehiengo hori). UAGNk darabilen argudio bakarra esnearen kopuruari dagokio. Bere ustez, foru aginduan datuak «puztu» dira esne eskasiarik ez dagoela ondorioztatzeko.

EHNE, pozez gainezka
Lubakiaren beste aldean, EHNE-Nafarroa sindikatuak, oro har, ontzat jo du Erronkari-



• CRISTINA BERTAIN



Belaguako Marengo artzainak izendapenik gabeko Erronkari gazta egiten du. Bere bordaren sarrerako kartelak zera dio: «Erronkari artzain gazta, hemen bakarrik» (Eskuineko argazkia) Erronkari jatorri izendapeneko gazta egiteko rasa, latxa esnea edo milchschatzaren arteko F1 gurutzatzearena erabiltzen da.

ko gaztaren inguruan Nafarroako Gobernuak atzera foru agindua. Mikel Lasarte EHNEko kideak erran duenez, «Gobernuak latxa ardiaren aldeko apustua egin du». Horrek EHNE sindikatuak latxa ardiaren alde egin duen borroka indartzen du. «Gobernuak bere aginduan erabili dituen argudioak gureak dira», gaineratu du.

Natxo Larrainzar EHNE-Nafarroako lehendakariak ontzat jo du «lacaune bezalako ardi industrialen errefusatzeari». Izan ere, EHNEkoek ez dituzte esne lantegiak gustuko. «Guk pentsatzen dugu ardia eta artzaina elkarrekin doazela eta, dirudienez, horrela izaten jarraituko du», gehitu du Larrainzarrek.

Dena dela, badago EHNEri gustatu ez zaion gauza bat. Foru aginduak baimentzen du milchschatz-latzaren arteko gurutzatzearen esnea erabiltzeko aukera. EHNErendako horrek ez du zentzurik. Ekoizpena handiagoa izan daiteke, baina esne horrekin lan egitea konplikatuagoa da. Artzain askok uste dute F1 gurutzatzea denbora galtzea izan dela, hobekuntza genetikorako buruen gutitzea. Hori dela-eta, guti erabili izan da gurutzatze horren esnea orain arte.

Mendialdea vs. Erribera
Erronkariko gaztaren inguruko borroka honen muinean Nafarroako Mendialdea eta Erriberaren arteko lehia izan da. Latxa ardia Mendialdeari lotuta dago, Nafarroako ardia da. Lacaune, berriz, kanpotik etorritako ardi mota da eta, egun, Erribera zein Erdialdeko «esne lantegietan» aurki dezakegu. Izan ere, lacaune ardia ukuiluari lotuta dago. Latxak

→ Asier Azpilikueta

Izendapenik gabeko Erronkariko gazta

JOSE MANUEL MARKOK, MARENGO IZENGOITIAZ EZAGUNAGOA, 45 urte ditu eta Marengo izeneko bordan bizi da, Belaguan. Aita almadiazaina zuen. Hark behiak zituen. Marengok 1979an ardiak hartu zituen eta ordutanik dabil gazta egiten. Bi alaba ditu, baina ez dute gaztarik egiten, ezta egiteko asmorik ere.

Marengo artzaina da. Eta Erronkariko gazta egiten du, baina ez du jatorri izendapenarekin saltzen. Artzainari argazkiak egiten uzten ez duen horietakoa da Marengo. «Ateraezu ardiei», erran dio argazkilariari.

Latxa ardien esnearekin egiten du bere gazta. Marengok jakin badaki latxa ardia ez dela superekoizlea eta mendialdean ekoiztea beti dela garestiago. «Latxaren batez bestekoa 130 litrotan dago, 120 ekoizpen egunetan. Latxak gutxi kontsumitzen du, lekuari moldatuta dago eta inguruko lurraldeak hobetzen ditu. Hori bai, latxa ardiaren artzainak artzain ona izan behar du».

Lacaune ardi kanpotarra, berriz, ukuiluari lotuta dago eta ez da mendian bizi. Lacaunekin merkatuak gainezka eginen lukeela uste du Marengok. «eta ekoizpena Erriberara joanen litzateke azkar».

Hobekuntza genetikoak

Horri aurre egiteko latxa ardia etengabe behetu behar da. «Eta halaxe ari gara», erran du Marengok. «Hamahiru urte daramatzagu hobekuntza genetikoarekin. 87 litroko batez bestetik 130 litroa hel-

du gara. Eta gehiago ekoiztera bultzatu behar dugu. Baina latxak laguntza gehiago behar ditu. Ardiaren hobekuntza artzainek eta Administrazioak inbertitzen dugunaren arabera izan da. Axuri emeen bankua behar dela uste dut. Eta banku hori bost milioi pezeta-ekin mantentzeko lasai aski. Bestetik, axuri emeen hezitzaile eta erosleari diru laguntza eman behar

zaie. Diru laguntza horri esker balio ez duten buroak azkarrago baztertuko lirateke».

Latxa ardiaren sinesteko beharra

Erran bezala, Marengok jatorri izendapenik gabeko Erronkariko gazta saltzen du. «Ez litzaidake inportatoki izendapenaren sartzea», adierazi du. «baina horretarako Kontseilu Erregulatuak gauzak hobeki egin beharko litzuzke, izen ona eta kalitatea bultzatu ekoizpena eta diruaren gainetik». Marengoren aburuz, izendapena abeltzantza-erakunde garapenera gelditzen zaion arma bakanetarikoa da. «Jendea badao ibarretik, eta izendapenak balio behar du Nafarroako mendialdea modu ez miserablean bizi dadin».

Marengo latxazalea da, baina, berez, ez dago lacaune ardiaren kontra. «Jendea, fede onez. Lacaunera pasatu da, baina ezin zaie gazta egiten utzi. Beharbada axuri emeen bankuaren sorrerak berriz ere latxak hartzea bultzatuko litzuzke. Baina ez dira sartzen, laguntzarik ez dagoelako. Latxa ardiaren sinetsi behar dugu, eta Alfaren foru agindua bide horretatik doala dirudi».



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Beste egile ahaztu bat: Anastasi Agerre

Anastasi Agerre (1897-1933), ezagunago egin den Jose Agerre Gurbindoren anaia txikerra zena, euskal idazlea ere bagenuen, orduko argitalpen jeltzaleetan gutxiz gehien argitaratu zuena, erderaz zein euskaraz, eta Iruñeko SOVen sindikatu jeltzalearen burua izan zena.



Anastasi Agerre Santesteban 1897an jaio zen, Iruñean. Bere aita zen Eulogio Agerre Aezkoako Ariatik Iruñera arribatu zen zurgintzan jarduteko. Ama, berriz, Benita Santesteban iruñarra zuen, erdalduna, eta horixe bide da arrazoia etxean euskaraz ez egiteko. Alabaina, eta ezagun denez, bai Anastasi eta bai Jose anaiak biak poliki euskaldundu ziren, eta gazterik gazte hasiak ziren zenbait argitalpenetan euskaraz ere haien idazkiak argitaratzen. Anastasi Agerre Karmen Telletxearen ezkontza zena eta hiru seme-alaba izan zituen. Giza gaiek kezkatutik, Anastasi Agerre Solidaridad de Obreros Vascos (SOV) sindikatuan sartu zen, eta Felix Tirapuk utzi ostean berau izan zen SOVen Iruñean izan zuen ordazkari-tzaren bigarren lehendakaria. 1933ko abuztuaren 2an, eta lanera zihoala, kamioi batek hiriko karriketan harrapatu zuen arte. Istripu larria izaniki, egun berean zendu zitzaigun Anastasi Agerre, hil-lagun Nestor Zubeldia apez adiskidea ondoan izan zuelarik — Nestor Zubeldia apez lizarra-tar huraxe Iruñeko kalonjea zein apezgaitegiko errektorea zen, eta giza gaiekiko berebiziko arreta ere erakutsirik, horren inguruko hainbat liburu karrikaratzaz gainera, gerra ostean, 1951n, Solidaridad Cristiana de Familias sindikatu kristauaren sortzailea izan genuen—.

Anastasi Agerreren lanak EAJren argitalpenetan ageri ziren gutxiz gehien, *Euzkadi*, *La Voz de Navarra* eta *Amayur* argitalpenetan hain zuzen ere. Lehenbizikoa Hego Euskal Herri

osorako zen, eta azken biak, berriz, Nafarroako jeltzaleek banatzen zituzten eta Iruñeko Batzokian inprimatzen ziren. San Jose plazako egoitzan lehenbizi eta Zapateria karrika-ko egoitzan geroago. Anastasi Agerrek erderaz zein euskaraz idatzi zuen, alabaina guri interesatzen zaizkigunak, euskaraz taxutu kolaborazioak, *Amayuren* ageri ziren bereziki. *Amayur* izen esanguratsuko astekaria 1931ko maiatzaren 23an atera zen estreinakoz eta gerrara artekoan iraun zuen hutsune zabal batekin. 1934ko urritik 1935eko azaro bitartean, Asturiasko iraultza-ri buruzko artikulu batean esanikoengatik agintariet itxi-ta eduki baitzuten, zigorturik. Lehenbiziko zuzendaria Anastasi anai izan zen, Sevillatik iritsi berria zen Jose Agerre Gurbindo, eta hartan jarraitu zuen 1932ko urriaren 10ean *La Voz de Navarra*ren lema-ri eutsi zion arte. Bigarren zuzendaria, orduan, Julio Ruiz de Oyaga *Laireta* izan genuen. Oibarkoa. Astekariaren orrialdeetan euskaraz taxutu kolaborazioen kopurua ez zen horren txikia garai horretarako, Nafarroako zein Nafarroaz kanpoko kolaborazioak iristen zirelarik. Omen handiko izenen ondoan baziren sinadura apalagoak ere euskaraz idazten zuten nafarren artean: Pablo Fermin Irigarai *Larreko*,

Aingeru Irigarai *Iru-lar*, Jose Agerre Gurbindo edo Zirt, Juan Irigarai *Mendi-Txuri*, edo oraino ezezagun gertatzen zaizkigun *Oyantxori* edota *Zubiondo* ezizenen jabeak.

Anastasi Agerrek *Amayuren* agertarazi zuen euskarazko lehenbiziko lana *Orain ontako astakeriak* zutabe lu-

zanga izan zen, 1931ko azaroaren 21eko 26. zenbakian agertua, SOVen osagai kristau eta euskaltzalearen aldarrikatzaile: «Gaurko egunean Euskal-Erri osoan oyu berea galdatu dugu lege laikoak ekendua izan ditezten errotik; ez da lenbiziko oyua, ez eta ere azkena. Bertzelako solasik ez dezakegu, zeren eta gure mami-mamiko zera baita bera; badakigu zein urratsak ditugun eginak, beti aintzina gure azkatasunari buruz. Itze bat landatzen ari gera espaiñolen kasko gogortuan; gure itzea gotorra da, zuzena ere, ez du inun erdoi kutsurik, ez eta biurgune okerrik; ari da sartzen kasko zailenen pleguetan barna. Jo aintzina, jo beti azkarkiago, zemendu Porlan armatuaren gogortasuna bezin kailu izateagatik gure auzoen burua jo beti gure itzea barna-go. Zenbait kraskako entzunik ere ez da izutzerik». Anastasi Agerrek euskaraz agertu zuen bigarren kolaborazioa 1932ko martxoaren 12ko 42. zenbakian ageri zen *Euzko-aberriaren eguna* izenburupean. Handik gutxira, martxoaren 26ko 44. zenbakian *Oiturrearen indarra* ipuina, eta apirilaren 9ko 46. zenbakian *Gizonik aundiena* pasadizoa agertu zituen, eta 1932ko apirilaren 17ko 47. zenbakiaz geroz, berriz, *Egiz eta txantxetan* eta *Irri-solasean* izenburuko sailak agertzeari ekin zion, non pasadizo, ipuin eta xelebre-ria zenbait kontatzen zizki-gun. Oraino beste kolaborazio pare bat atera zuen Anastasi Agerrek *Amayur* astekarian, euskararen aldeko bat eta estatutuaren bozketaren inguruko beste bat, baina aski garbi duguna zera da, horren gazte hil ez balitz, ausaz, askozaz idazle ezagunago zatekeela, Nafarroan garai hartan erruz loratu ziren beste euskal idazleak bezainbeste behinik behin.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Judumasoikeria arrasatzailea

Gai polita Ostiral Santurako. Nik adituak ditut askotan: masoi, judio, usurero, politikero, bankero, kontratista, dekoradore, demokratiko, papeler, txatarrero, katedratiko, injinero, diplomatiko, tekniko, moderadore, publizista, akomodadore, libertadore, hotelero, pionero... eta beste hitz asko. Baina, nere aitarena gertatzen zait: denak famili berekoak iruditzen zaizkida. Ez dut tajuzko arrazoirik bilatzen elkarren arteko matizik egiten hasteko. Denak sorrera, ibilera, eta amaiera berbereko hitzak balira bezala iruditzen zaizkit, gixatza harpari hantuste bat eta bereberaren izengoitiak balira bezala. Bai: bada erudizio eta matiz klase moderno ugalkor bat, buruz ezin ikasi dudana; senak ez uzten nonbait.

Sasiletratu petoa naiz. Ez dut sekulan erudiziorik aski bilduko, matiz antzuetan galtzeko. Begien bistako gauzak gustatzen zaizkit. Prixt! azaltzen diren horiek. Gizakia, harroaldi, itsualdi, pozaldi, erroaldi, urrialdi, itxuraldi, zintzoaldi... eta beste hutsaldi ugariz betetako zorro sintetikoak baita. Hala, kolpeka edo ostikoka hobeki ezagutzen da, titulu edo etiketari begira baino. Keinu, eztul, irrifar, edo adio ttar bat aski izaten baitu iraultzailepeko senik burgese-na azaleratzeko, edota nobleza gaindiko zitakeriarik mehe-na ere gordetzen saiatzeko.

Ertaroan ere, diru mailegua beharrezko omen zen; eta gehientsuena, orain bezalaxe, juduen zakutik aterea. Aita santuek askotan salatu zuten lege kontrako diru iturri hurra, baina, askotan herritarra bera izan ohi zen, batez ere mixeri aldietan, justizia bere esku hartzen zuena, judutegiak purrakatu eta prestamistariak beketsenak bertan garbituz.

Gero, arrazismoa esaten da, horra hor, judioen kontrako

gorrotoaren arrazoirik zaharren eta sanoenetakoa. Usure-roa, bankeroa, politikeroa, filantropoera, amerikeroa = judumasoia da gizaeraz, kulturaz, odol zurikoa. Eta hona paradoxa: halere, inperio horren kontrako iraultzailea duzu judumasoien aldeko ino-xenterik sutuena. Honatx, galdu naiz atzera matizetan.

Nafarroan hartaraino estutu zen kontua, non Alejandro IV. aita santuak eman zion agindua Teobaldo II. erregeri 1256an juduek usura bidez berenganatutako ondasun guziez jabetzeko. Beste batzutan erregek berak zabalduko zuen juduen usura neurrigabeak ez ordaintzeko agindua.

Eta azkenean Felipe III.ak ezarri zien 1330ean muga, mailegu bidez nahi haina diru berenganatzen ari zirenei, ez zezatela %20 baino korritu haundiagorik kendu; baina, alferrik izan zen legea, dirua behar zuenak, hori baino askoz haundiagoak pagatzen baitzituen larri aldietan; 1330-1443 urteak bitartean ageri dira %25, %30, %35 eta %68ko korrituak ere. Atera kontuak.

Horrek guziak egungo gizar-te ereduak dakar burura: bazter guziak, ezker eskuin arrasatzen dituen judumasoike-ria, alegia. Herritik atera gabe zenbat ikusten ditudan, puff! Eta gero, Aita Santua, judutarrerekin egindako masakreaz barkazio eske; oraingo judumasoikeria abereko honek ari duen masakre humanista politagoa balitz bezala!

Isiltzea dut hobeto. Ez baitakit, zer esaten ari naizen. Sasiletratuak horixe du: gauzak bizi eta sentitu arren, ezin dituela adierazi bere burua matizetan galduz; eta amorrazki egiten da, eta isildu. Eruditoak berriz, hitz guziak badakizki, baina ez da deus tajuz bizitzeko eta sentitzeko kapaz. Hitzaren komertzianta eta komedianta huts bihurtzen baita atzenerako.

Ziria

• Motxorrosolo •

Autokritika

AURTEN ERE, BURGI ETA BAIGORRI EGUN BEREAN BILTOKI. Kasualitatea ote? Azken urteotan, erakundeek utzi ohi dituzten zirrikituak baliatuz, hainbat ekimen gorpuztu dira. Giro berriak kinka larrian jarriko ditu horietako batzuk. Garai zaharrak amestera iritsi gabe ere, autokritika egin behar-ko genuke tinko defendaturiko zenbait jarreraren aurrean.

Laura Laubach

NAFARROAKO ESNEAREN LIGAKO MONITOREA

«Biberoiaren kultura bizi gara»

● CRISTINA BERRAIN



soslaia

Bere hitz egiteko moduak agerian uzten du Laura Laubach ez dela hemengoa. «Duela hamahiru urte ailegatu nintzen Iruñera, hemen ezkondu eta hemen gelditu naiz», gogoratzen du. Euskara ikasten ari da orain, semearekin hitz egin ahal izateko.

Duela urtebete sortu zenetik, Nafarroako Esnearen Ligan ari da lanean. Denbora horretan, 21 bilera egin dituzte, eta 160tik goiti dei jaso dituzte, informazio eske, 948 17 41 11 eta 948 24 35 10 telefono zenbakietan. Mundu osoan, 8.000tik goiti monitore ditu Esnearen Ligak, 65 herritan banatuta.

Lehen urtea bete ondoren, informazio telefonoekin eta bilerekin aurrera jarraitzeko asmoa du Nafarroako Esnearen Ligak. Halaber, edoskitzearen arlo nagusiak biltzen dituen triptikoa plazaratuko du.

Esnearen Nazioarteko Liga Nafarroara ailegatu zen duela urtebete. Elkarte horrek bi monitore ditu gure herrialdean, eta euren lana da haiengana hurbiltzen diren amei edoskitzearen inguruko informazioa eta laguntza helaraztea.

NAFARROAKO ESNEAREN Ligak dituen bi monitoreetako bat da Laura Laubach. Edoskitzeak amarentzat eta haurarentzat dituen abantailak nabarmendu ditu, eta elkarte horrek ama nafarren artean izan duen harrera ona azpimarratu.

■ **Duela urtebete sortu zen Esnearen Liga Nafarroan; zein izan da orain arteko zuen lana?**

Gure helburu nagusia euren seme-alabei bularra eman nahi dieten emakumeak laguntzea da, informazioa eta laguntza eskaintzea. Hilean behin bilerak egiten ditugu, eta, bilera horietan, esperientziak trukatzeko aukera izaten dute amek. Beste emakumeekin hitz egiteko aukera izateak bularra ematen jarraitzeko gogoia ematen die amei, eta, bileretan, halaber, dauzkaten zalantzak argitu ditzakete, eta hainbat gauzaren inguruko informazioa jaso: amaren esneak dituen abantailak buruz, bai amak jarraitu

beharreko dietari buruz, lan egitea eta bularra ematea bateratzeari buruz, nutrizioari eta titia kentzeari buruz, eta abar. Nafarroan bi monitore gaude, Isabel Garcia eta ni neu.

■ **Zer-nolako harrera egin dizuete Nafarroan?**

Emakumeek interes handia dutela nabaritu dugu, eta oso pozik hartu dute Esnearen Ligak eskaintzen dituen zerbitzuak. Gehienetan, dituzten zalantzak argitzera etortzen dira guregana. Titi-buruak ez mintzeko zer egin dezaketen galdetu, edo lehen asteetako edoskitzearen inguruko informazioa eskatzen digute batez ere. Ama askok, halaber, edoskitzea eta lana bateratzeko modurik ba ote dagoen galdetzen digute.

■ **Eta badago?**

Bai. Lehen hamasei astetan edoskitze egokia finkatzea da gakoa. Edoskitzea eskaeraren arabera da, hau da, bularra zenbat eta gehiago eman, orduan eta

esne gehiago izanen du amak. Amak lanera itzuli nahi badu, semearengandik edo alabarengandik banandu behar duela kontuan izan behar du, baina ez du zertan edoskitzea bertan behera

Ezjakintasun handia dago gai horren inguruan. Ama askok ez dakite edoskitzea bertan behera uzteko beharrik ez dutela lanean hasi arren. Informazio gehiago behar dela uste dut, bai amentzat, eta baita lantegi edo bulegoetako arduradunentzat ere, euren ere profintatu baititzakete edoskitzeak dituen abantailak. Seme-alabak gutxiago gaixotzen dira, eta, ondorioz, amek lan egun gutxiago galtzen dute. Gizartea kontzientziatzen saiatzen gara gure elkartetik ere.

«Gure helburu nagusia euren seme-alabei bularra eman nahi dieten emakumeak laguntzea da, informazioa eta laguntza eskaintzea»

utzi. Horrek, gainera, banaketari aurre egiten laguntzen die amei. Bularretako esnea ateratzeko aparailuak eta teknikak badaude, eta, modu horretan, ama ez dagoen orduetan haren esnea hartzen jarrai dezake haurrak.

■ **Seme-alabei titia ematen jarraitu nahi duten amek lantegian behar adina laguntza jasotzen dutela uste al duzu?**

■ **Asko hitz egiten ari da azkenaldian edoskitzeak dituen abantailak; zeintzuk dira nagusiak?**

Haurraren bizitzaren hasieran elikagairik onena da. Nutrizio egokia eskaintzen du, eta infekzio eta alergen kontra babesten du haurra. Horretaz gain, amaren eta seme edo alabaren artean harreman berezi eta estua sortzen da, eta, horrek, haurraren bilakaera

emozionala bultzatzen du. Esperientzia zoragarria da. Edoskitzearen inguruko interesa handitzen ari dela konturatu gara gure bileretan, baina gaur egun biberoiaren kultura bizi gara oraindik. Guk, edoskitzearen kultura bultzatu nahi dugu.

■ **Hainbat lekutan titia jendaurrean ematea ez dago ongi ikusita. Berriki, protesta egin dute Gijongo hainbat emakume ostatu batetik semeari bularra ematen ari zitzaien ama bota zutelako. Zer iritzi duzu halako gertaeren aurrean?**

Zorionez, gutxitan gertatzen dira. Titia ematea gauza erabat naturala dela argi izan behar dugu. Gizartea kontzientziatu behar dugu, hori da gure lana. Gure eguneroko lana amekin egiten dugu, zuzenean, baina gizarte osoa barneratu behar dugu.

■ **Gizonezkoek ere ba al dute lekuriak zuek antolatzen dituzuen bileretan?**

Bai, familia osoak. Aitarena oso figura inportantea da prozesu osoan. Aitaren laguntza funtsezkoa da. Gainera, titia emateaz gain, beste zeregin asko daude haur baten inguruan, eta beste horiek egiteko ez du inolako arazorik aitak.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Haustura birtuala

Baztango landa etxe guztiak betebeterik zeuden Aste Santuko jai egun hauetarako. Asteazkenean, ordea, nire lagunak eta biok gelatxo bat aurkitu genuen Zigako baserri eder batean. Baztango bailarari Mikel Laboak musika eta Mariano Izetak letra nik baino hobeto eta lehenago jarri diote. Beraz, nire ekarpen lirikoa beste baterako utziko dut.

Gure baserrian, ondoko gelan, Erriberako bikote gazte bat dago. Hiru egun daramatxagu elkarrekin. Sutondoan elkarriketa amaigabeak izan ditugu gaueko ordu ttikietaraino JB, txakurra, infusioak, txirriak, patxarana eta Red Hot Chili Peppersen babesean. Antonio Arguedaskoa da, Loli Tarazonakoa. Tuterako BBVko goi karguak dira biak. Diario de Navarra erosten dute egunero, baita oporretan ere. Euskaldunon Egunkaria bazenik ere ez zekiten.

Haien kontura, makina bat zainzuri goxo afaltzen ditugu egunero. Hori bai, hauek ureztatzeko litozko urtegia beharrezko ikusten dutela esan ziguten lehen-goan. Giroa apur bat baretzeko, Baztango mamiaren kalitateaz hasi nintzen ni solasean. Lagunak eta biok euskaraz hitz egiten dugu tarteka. Hori dela-eta begirada susmagarriak gurutzatzen zizkioten elkarri gosaria egiten ari ginela atzo. Nolanahi ere, gauean, hirugarren patxaran koparekin batera ez daudela euskararen kontra argitu ziguten. Beste kopa pare bat edan ondoren, ordea, Sanz gizon herrikoia iruditzen zaiela bota zuen Lolik. Horren parean jartzeko, euskaltzalea eta abertzalea nintzela esan nien nik.

Atzo bertan Sarako kobazuloak bisitatzera joan ginen, eta Ipar Euskal Herriari buruz mintzatzeko parada izan genuen luze eta zabal. Elkarrengandik ehun kilometrorra bizi gara. Gure arteko distantzia agian are handiagoa izanen da. Dena den, orain arte behintzat, primeran moldatu gara etxe barruko harremanetan, baita kanpora egin ditugun ateraldietan ere. Duda izpirik gabe, trukaketa hau aberasgarria izan da orain arte. Non dago etengabe politiko zenbaitek irudikatzen duten bi komunitateen mamua? Gizartean ez dago hausturaren arriskurik, oraingoz behintzat.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- Iruñea:** Los Roslis taldeak kontzertua eskainiko du, bihar, San Frantzisko karrikako Donegal tabernan, 21:30ean.
- Iruñea:** Zunbuz asturiarrak Nabarrerriako Terminal tabernan izanen dira, ostegunean, 21:30ean.

BERTSOLARIAK

- Donibane-Lohizune:** Bihar, 18:00etan, Xardina erretegi, Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Xabier Terreros, Ekhiñe Etxepeteleku, Olatz Perea, Irati Anda, Joseba Otaegi eta Beñat Lizaso bertsolariak ariko dira Mattin sariaren bigarren kanporaketan. Ondoren afaria izanen da.

HITZALDIAK

- Iruñea:** Gaur, 19:30ean, Joxe Angel Irigarai idazleak hitzaldia eskainiko du, Nabarrerri kultur zentroan.

ANTZERKIA

- Etxarri-Aranatz:** Asteazkenean ipuin kontalaria izanen da haurrendako, bi txandatan, 17:30etik aurrera.
- Uharte:** Ostegunean *Pinto 2000* antzezlanaren taularatuko du Gorakada taldeak, kultur etxean, 12:00etan.
- Etxarri-Aranatz:** Ostegunean, *Liburulariak* lana antzeztuko dute, kultur etxean, 22:00etan.

KIROLAK

- Arguedas:** Astelehenean, Yugo-ko ermitarako V. igoera egiten dute. Lasterketa 12:30ean hasiko da eta izena orubete lehenago eman daiteke. Parte-hartzaile guziei

oparia eta otordua emanen zaie.

ERAKUSKETAK

- Barañain:** Jose Ramon Sanchez *On Kixote Mantxakoa* marrazki erakusketa kultur etxean izanen da astelehena arte, lanegunetan, 18:30etik 20:30era.
- Atarrabia:** Heldu den ostirala arte ikus daiteke kultur etxean Luis Liberal Arriolaren akuarela eta pastelaren erakusketa, 17:00etatik 21:00etara.
- Burlata:** Hilaren 30 arte ikus daiteke Antonio Mencosen argazki erakusketa, Joakin Azkarate karrikako aretoan.

IKASTAROAK

- Iruñea:** Asteartetik ostiralera Alde Zaharreko auzo elkar-tearen ikastaroetan izena emateko epea zabalik da: eskulanak, yoga, masajea, argazkigintza, txalaparta, marrazketa, areto-dantzak, ehozi lana, antigimnasia eta afro-dantza. Informazio gehiago 948-212526 telefonon.

LEHIAKETAK

- Eguesibar:** Hilaren 28 da enplegua bilatzeko ikastaroan —Udalak antolatuta du— izena emateko azken eguna. Ikastaroa Ana Beaumont

psikologoak emanen du, 16 eta 30 urte bitartekoei zuzendurik dago eta doakoa da.

- Baztan:** Hilaren 29an bukatzen da aurtengo Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartel lehiaketan parte hartzeko epea. Kartelak honako testua izan beharko du: «Baztandarren Biltzarra 00. Elizondon uztailaren 16an. Eskuarak batzen gaitu». Neurriak 50 x 70 zentimetroak izanen dira, asko jota. Kartelak honako helbidera bidali behar dira: Baztandarren Biltzarra, 22 P.K., 31700 Elizondo.

JOXE LACALLE



Ezker pareta

Nafarroa Garaian trinketaren ohiturarik ez da. Lizarrerriko Iguzkitza-Oteitza herrian antzeko zerbait badute. Pilotan aritzeko pareta bakarra nahikoa dute askok, baina Oteitzan ezkerrekoa erabili nahi duenak jai du. Jai, edo joko polita, auskalo. Izan ere, joko arras dibertigarria izan daiteke pilotari botea leihotzen ematen uztea, atearen tarte horretan ezkutatzeari, edota pilota bukarako hesi horren tartetik abiaraztea. Jesus Lukin oteitzarra Idoia frontoian hasi zen pilotan eta, gerora, txirrindulari entzutetsua izan zen.